

Herririk Herri |4|

AHTaren aurkako ekintzagatik bederatziz hilabeteko kartzela zigorra bi durangarri



Berbaz |8|

lurretako banderaren 100. urtemugako ospakizunak antolatzen dabil batzordea

Amalurra |18|

2010ean 2.600 tona hondakin jaso ditu Durangaldeko Garbiguneak

Gehiengo sindikalak urtarrilaren 27ko greba argudiatu du

Durangaldea• ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRUK urtarrilaren 27ko grebaren inguruan hainbat ekintza antolatu dituzte Durangaldean. Martitzenean Gizarte Segurantzaren aurrean grebaren arrazoiak azaldu zituzten eta gaur, 12:30ean, manifestazioa irten da Santa Anatik.

2

Arrazola auzoko etxebizitza zozketa urtarrilaren 17an

Atxondo• Arrazolako apartamendu sozialak astelehenean zotz egingo dituzte. Otsail amaierarako kontratuak sinatu eta giltzak hartzeko moduan egongo dira jabeak. Udaltxeko pleno aretoan banatuko dituzte, 12:00etan.

6

Asuntze mendi kluba sortu dute Atxondon

KIROLA• Atxondoko mendizaleen bilgune izateko eta herrian zaletasuna sustatzeko helburuagaz sortu dute Asuntze mendi kluba. Talde parte-hartzailea izan gura dutenez, deneriko ekimenak prestatuko dituzte, adin tarte zabalarentzat.

18

'Hau ez da Kalkuta' estreinatuko du bihar eta etzi Karrikak

KULTURA• Orain zortzi urte Durangoko institutuan oholtzaratu zuten lana oinarri hartuta, moldaketa berria egin dute Karrika antzerki taldekoek. Urtarrilaren 15ean eta 16an, Durangoko San Agustinen estreinatuko dute *Hau ez da Kalkuta*.

11

•Berriz

Urzabal skate-pista eta rokodromoa zabaldu dituzte

4

•Otxandio

Otxandio, Aramaio eta Oletaren arteko lankidetzak hitzarmena

6

•Mallabia

Haurrak euskaraz erregistratzeko mozioa onartu du udalak

3

Tabakoaren lege berria normaltasunez ezarri da

> Udaltzainek kexa bi jaso dituzte Durangon eta jakinarazpen bat Elorrión

> Legea EAEn zelan ezarri otsailean erabakitzea aurreikusi du Jaurkitzak

02



Taberna kanpoko zaratak auzokideen kexak ugaritu ditzakeela ohartarazi dute ostalariek. Kepa Aginako



hortz klinika

Ekoden

Arkotxa, 4 - Etxabea
48200 DURANGO
Tel.: 94 621 78 22

**EZ GARA
FRANKIZIA
GURE ARDURAEAN
ZAUDE**

www.clinicaekoden.com

ORTODONTZIA IKUSEZINA



**URTE
1ean**

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA



IÑIGO CARRETO >
+DENDAK ELKARTEA

Arazorik izan da Durango-ko tabernetan?

Guk dakigula Durangon ez. Zer deritzozu lege berriari? Oso haserre gaude legearen izaeragatik. Instituzioetako lokaletan udalek, Aldundiek

eta Jaurilaritzak legea betetzen ez dutela ikusita; frontoien kasuan, ez da ezer gertatzen. Guri lehenengo momentuan 600.000 euroko isuna. Orain pozik daude kolaboratuko dutela esanez. Telebistaz ere ikusten dugu jendea erretzen udalek antolatutako jaialdietan. Txokoetan erre liteke eta tabernetan, berriz, ez. Ikus-teko dago legeak ondorio ekonomikorik izango duen.



VICENTE FERNÁNDEZ >
AMANKOMUNAZGOKO
DROGOMENPEKOTASUN SAILA

Erretzeari uzteko kurtsoek zer harrera izan dute?

Oso ona. 35 bat lagunek parte hartu dute, eta pozik gaude erantzunagaz. Erretzeari uztea borondate kontua da?

Bai. Badakit aspaldian jende asko hurreratu dena farmazietara zigarro elektronikoko erostera. Hori ondo dago, baina banaka erretzeari uzteko probabilitatea %10 ingurukoa da. Talde espezializatuagaz, profesionalen aholkuekin eta zure egoera berean dauden sostenguagaz, aukera %40ra igoz da. Kurtsoa egiten dutenen %50ek baino gehiagok uzten dute.



ESTI LARRAÑAGA >
LARRAÑAGA -BALENCIAGA
FARMAZIA ELORRION

Tabakoaren legeagaz jendeak erretzeari uzteko botikak gehiago eskatzen ditu?

Urte hasieran ohikoa izaten da erretzeari uzteko ahalegina egitea, eta aurreneko erretzearen erregulazioa izan da. Nabari-

tu duguna da bezeroek zigarro elektronikoko gehiago eskatzen dituztela. Nobedadea izan daitekeelakoan gaude.

Zelan funtzionatzen du horrek?

Kargadoreagaz eta kargadore barik erosi daitezke. Baporea botatzen du eta geneuzkan apurkak saldu ditugu. Almazenean eskatuz gero agortuta daudela esaten digute.

+Dendakek ez du ontzat ematen "salatari" lana egin beharra

Tabakoaren kontrako legea dela eta kexa bat Elorrioren eta bi Durangon

Urteberriagaz batera tabakoaren lege berria indarrean jarri du Madrilgo Gobernuak. Durangaldeko tabernetan ere, urtarilaren 2tik aurrera, bezeroek tabernetan ez ohiko usaina nabaritu dute. Pintxo, bazkari afari, kafe edo garagardoa tabakoaren usainik barik dastatzeko aukera eskaintzen dute establezimenduek. Durangaldean normaltasun nagusi izan dela azaldu digute ostalariek eta udaltzainek. Elorrioren kexa bat jaso dute eta Durangon bi, "baina ez da arazorik sortu".

Hala ere, lege berriak zalantza ugari sortu ditu, bai bezeroen bai ostalarien artean. Izan ere, Madril onartutako legea EAEn zelan aplikatu Eusko Jaurilaritzak orain-

dik ez du erabaki. Elorrioko udaltzainek azaldu digutenez, "herritarak aztoratuta dabilta eta galderak egiten dizkigute, legeaz zelan aplikatuko den eta non erre daitekeen azaltzeko, baina Eusko Legebiltzarrak erabakia hartu arte ez dakigu ezer".

Durangaldeko farmazia askotan zigarro elektronikoen salmenta hazi egin da

Ostalariak haserre

Durangoko +Dendak elkarteak ostalariek legea ez dute onartzen ematen. Gaineratu dutenez, aurreko legeagaz establezimendu

batzuek erretzaileendako guneak egokitu zituzten, eta orain lege berria onartu dute. "Salatari" lana egiteari txarto deritzote: "Nolaliteke baten batek gure lokalean errez gero isunik handienak guretzako izatea? Lege honek ez du ez hankarik ez bururik", kritikatu dute. Bezeroak erretzera taberna kanpora joanez gero auzokideekin zaratara azoak sortu daitezkeela ohartarazi dute. "Lege berriaren ondorioz auzokideekin arazoak sortzen badira", euren errurik ez botatzeko eskatu dute.

Erretzeari uztea urte hasierako helburua izan ohi da askorendako. Inguruko farmazia batzuetan zigarro elektronikoen salmenta hazi dela jakinarazi dute. ■ J.G.



Tabernen kanpoko aldean biltzen dira erretzaileak. Kepa Aginako



Martitzenean eman zuen prentsaurrekoa gehiengo sindikalak.

Pentsioen erreformaren kontrako greba orokorra defendatu dute

Gehiengo sindikalaren ustez erreformak "pentsio pribatuak bultzatu" gura ditu

Durangoko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren aurrean, pentsio erreformaren aurka urtarilaren 27rako deitu duten greba orokorra defendatu eta argudiatu zuen ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRUK osatutako gehiengo sindikalak martitzeneko prentsaurrekoan. Eskualdean egingo dituzten ekintzen artean, gaur manifestazioa egin dute Durangon.

ELA sindikatuko kide Mikel Etxebarriak adierazi zuenez, "Estatuak berrero bezala aurrera eramanez nahi dute historiako lapurretari handienaren barruan sartu daitekeen puntu garrantzitsu bat: pentsioen erreforma". ELAren ustez, "krisia sortu zenetik, finan-

tza merkatu eta banku espekulazioak beraie hutsak estaltzeko gobernuak eskatu diete dirua eta, horrez gainera, politika neoliberalak eta kapitalistak ezartzeko agindu diete".

Gobernu zentralak erretiroa 67 urtera arte luzatzeko duen asmoa salatzen dute

Pentsioen %100a jasotzeko 38 edo 40 urte kotizatu beharko direla ere kritikatu dute

LABeko ordezkari Eulate Zilonizurrekoetxeak "pentsio publikoaren amaiera eta pribatuaren bultzatzea" dakusa erreformaren atzean, eta dagoeneko "erabakia hartuta dago": "Banketxeekin adostuta dago erreforma egingo dela, eta antzerkia egiten ari dira CC OO eta UGT gobernuagaz akordioa heldu daitezen". Sistema publikoa "ez dago arriskuan", LABen iritziz, "superabita du". Gainera, gogoratu duenez, Hego Euskal Herrian "pentsiodunen erdia pobrezia mugatik behera" bizi da gaur egun. ■ J.D.

> Bideoa adierazpenekin
www.anboto.org-en



DURANGO

Gurasoek umeen heziketan sentitzen dutena aztergai

Habixe elkargunean guraso izateagaz lotutako gaiak lantzen dituzte; bihar daukate urteko lehen batzarra

Umeak hezterakoan zelan sentitzen diren hausnartuko dute, bihar, Habixe gurasoen elkargunean. Durangoko Andragunean batzen dira hilero, hirugarren zapatuetan, 11:00etan. Pinondoko lokalean guraso legez dituzten ardurak konpartitzeko gunea eta lagunartea sortu dute.

Umeen eta gurasoen beharri-zanak zelan uztartu, autoritatea eta autoritarismoaren arteko mugak zeintzuk diren... Hainbat gairi buruz berba egiteko batzen dira Habixeko lagunak. Ikasturte hasieran landu gura dituzten gaiak adosten dituzte. Gai horien gaineko artikulua eta informazioa konpartitzen dute batzarren aurretik,

Gurasoek artikulua irakurri eta norbere bizipenak partekatzen dituzte Habixen

eta elkartzen direnean artikulua komentatu eta bizipenak partekatzen dituzte.

Batez ere, ama diren emakumeak elkartzen dira Habixen, baina guraso guztiei zabalik dagoen gunea dela nabarmendu dute bertako kideek. Batzarrek iraun bitartean umeek jolasteko txokoa dago Andragunean, eta batzarrean bertan ere egon daitezke. ■ A.U.

Datozen batzarrak:

- **Bihar:** Nola hezten dugun eta nola sentitzen garen
- **Urtarrilak 29:** Familia rola
- **Otsailak 19:** Haserrealdiak
- **Martxoak 19:** Umeen beldurrak eta ezinegonak
- **Apirilak 16:** Loia eta elkarrekin lo egitea
- **Maiatzak 21:** Emakumearen feminitatea hazkuntzaroan



Hileko hirugarren zapatuetan batzen dira Andragunean.

AHTaren kontrako ekintza bat egiteagatik bederatzi hilebeteko kartzela zigorra

Durangar biek ez dute zigorra beteko; urte bi baino gutxiagokoa delako eta ez dutelako aurrekaririk

2009an Euskal Liburu eta Disko Azokako egunetan, durangar bi erakustazoka aurrean zegoen autobus baten gainera igo ziren, AHTaren kontrako protesta moduan. Desorden publikoa egotzita, fiskaltzak urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu zuen eta, azkenean, alde biek bederatzi hilebeteko zigorra adostu eta sinatu zuten eguen goizean, Bilboko Epaitegian.

Dena dela, durangar biek ez dute kartzela zigorrik beteko, zigorra urte bi baino txikiagoa delako

eta ez bata ez besteak ez dutelako aurrekaririk.

Bestalde, datorren eguaztenean Durangoko beste gazte bat epaituko dute Donostian. Gazte horrek AHTaren kontrako Ordiziako manifestazio batean parte hartu zuen 2008an. ■ J.D.

Datorren eguaztenean beste durangar bat epaituko dute Donostian

4.158 euro batu dituzte Andra Marian, Senegalen 13 gazteri beka ordaintzeko

Orain hiru urte hasi zuten Oussouye herriaren eta Andra Maria parrokiaren arteko hartu-eman

Duela hiru urte sortu zen Andra Mariko parrokiaren eta Oussouye herriaren arteko hartu-eman. Durangon bizi diren hainbat senegaldar Oussouyeokoak dira. Eurekin eta Teodoro Lambal abadeagaz hartu-eman dauka Andra Mariko kristau komunitateak. Hartu-eman horretatik abiatuta, bigarren hezkuntzako ikasketetarako bekak lortu dituzte.

Dirua hainbat modutara batu du Andra Maria inguruko kristau komunitateak: abenduko elizki-

zuetan batutako dirua, Gabon Jaia... Azkenean, 4.158 euro batu dituzte, Oussouyeoko 13 gazteren ikasturtea ordaintzeko adina.

Astarloa saria

Bestalde, Astarloa kultur elkarteak senegaldarrek osatutako M'Lomp taldeari eman zion urte amaieran XIV. Astarloa saria Durangoko Batzokian burututako ekitaldian. Hyacinthe Mangak elkarte-ko beste hainbat kidearekin jaso zuen saria. ■ J.D./A.U.

Proposamen eta kexak batzeko kanpaina hasi du DAZek

Durangoko Alde Zaharra elkarteak (DAZ) Alde Zaharreko auzotarren iritzia jaso eta udalari eroango dizkio. Otsailaren 24ra arte, eguenero jasoko dituzte iritzia Pinondan, 19:00etatik 20:00etara. E-maila ere sortu dute: durangoaldezaharra@yahoo.es. Legegintzaldia amaitzeko delata, alderdiek aurreko hauteskunde kanpaina egindako promesa gehienak "promesa hutsean" geratu direla kritikatu du DAZek.

"Auzotarrok dagoeneko nekatuta gaude gerora haizeak eroango dituen berba onak entzuten", salatu dute. Asmoak "proiektu hutsaletan edo martxan ipintzen ez diren aurrekontu partidetan geratu dira" DAZen iritziz. ■ J.D.

MALLABIA

Umeak euskaraz erregistratzeko mozioa onartu du udalak

Udalak aho batez onartu du haurrak euskaraz erregistratzeko eskubidea aldarrikatzen duen mozioa. Dokumentuak dioenez, Erregistro Zibileko Legean gaztelania ez besteko hizkuntza ofizialak erabili ahal izateko legezko aldaketa onartu zenetik bost urte pasatu dira, eta "gure herrian ez dira beharrezko neurri eta mekanismoak martxan ipini euskaldunon eskubideak egikartzeko". Dagokien arduradunei eskatzen diete jaiotza erregistroa, ezkontza erregistroa eta heriotza erregistroa euskaraz egiteko neurriak hartu eta bideak jartzea.

Udalak Jaurilaritza eskatzen diou dalerri euskaldunei arlo honetan lehentasuneko trataera ematea. Gainera, herriko euskaldunei eskatzen diete bake epaitegian zerbitzua euskaraz eskatzeko, eta jaso ezean erreklamazioa jartzeko. Eskaerak egiteko idatzi eredu udaletan jaso daiteke; baita UEMAren bitartez ere. ■ J.G.

A. Urreta

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología

Podinara Urreta Jainaga

188. Elkartekidea

ONTRACK HIZKUNTZA ZERBITZUAK

- ARABIERA Hasierako maila, Urtarrilean.
- INGELES A Goi-mailako mintzamina.
- GAZTELANIA B1 eta B2 mailak.
- UDAKO EGONALDIAK
- INGALATERRAN (Plymouth, Exeter)
- Ekaina-Uztaila. Adina: 12-19 urte.
- AMERIKETAKO ESTATU BATUAK (Oregon, Washington, Mid-West)
- Uztailan. Adina: 15-19 urte.

2011 KO ESKAINTZAK matrikulak zabalik

946 58 46 73 BERRIO-OTXOA 18, ELORRIO
WWW.ONTRACKENGLISH.COM

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

BERRIZ

Indarkeria sexista: arreta protokoloa

Indarkeria sexistaren biktimei arreta hobe emateko helburuz, Durangaldeko erakundeen arteko koordinaziorako protokoloa prestatu dute azken bi urteetan Berriz, Abadiño, Durango eta Elorrioko udalak eta Amankomunazgoak. Ertzaintza, Osakidetza eta Hezkuntza Sailagaz ere jardun dute lanean. Eguazteneko udalbatzarrean protokolo hau onartu zuten EAJko bost botoekin; gainerakoak

Hilaren amaieran aurkeztuko dute lau udalak eta Amankomunazgoak prestatutako protokoloa

abstenitu egin ziren. Ezker Abertzaleko Karmen Amezuak "emakume taldeen, eragileen eta oposizio-ko alderdien iritzia jaso barik" egin dela kritikatu zuen. Gainera, arreta zerbitzu gehienak arratsaldetik aurrera izaten direla-eta, protokoloaren ordutegia 15:00ak arte izateagaz desadostasuna agertu zuen.

Hilaren amaieran aurkeztuko dute protokoloa, ekitaldi batean.

Zabaldute Urzabal skate-pista eta rokodromoa

Astelehenean inauguratu eta hilaren 23ra arte 'Ateak zabalik' jardunaldiak egingo dituzte

Urzabal kalean egokitu dituzte barruko skate pista eta rokodromoa, Berrizko Hiltexgize gaztetxearen atzealdean. Estalpeko kirolazpiegiturak dira eta erabiltzaileentzat aldage-lak, dutsak, komuna, biltegia eta bulegoa izango dira bertan. Berrizko Udala erabilerarako araudia prestatzen dabil, 'Ateak zabalik' jardunaldien ondoren indarrean jartzeko. Amaraune eskalada taldeagaz hainbat batzar izan dituzte aspalditik proiektua zehazteko, eta, behin zabalduta, baliteke kudeaketa ere talde horren esku geratzea. Informazioa eta trami-teak egiteko aukera kiroldegian emango dituzte. Oraingoz, probarako erabili daiteke instalazioa hilaren 23ra arte; astegunetan 17:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 09:00etatik 13:00etara.

Gerora skatea edo rokodromoa erabili gura duenak Urzabal zabaltzeko txartela eskuratu beharko du lehenengo Berrizburu kiroldegian. Kiroldegiko tarifa berbera izango du eta 3,99 euro-tako fidantza ordaindu beharko da txartelagatik. Urteko kiroldegiko abonua dutenek 20 euroko prezioan urte osorako erabilera-baimena izango dute. Baina, gura izanez gero, 10 sarbiderako bakarrik aktibatu daitekeela ere aurreratu dute, 5 euroren truke.

Ezaugarriak

Skate pista Uitzurakoa da. 140 zmk altuera dauka eta irristatzeko azalera 50 metro koadrokoa da. Rokodromoa 154 metro koadroko azalerakoa da; hiru gune egokitu dituzte, eskalada mailaren arabera. ■ M. Onaindia.



Eskalada eta skate zaleak hasi dira instalazioetara hurreratzen.

Etkez etxeko janari zerbitzua arautu dute

Eguazteneko plenoan etkez etxeko janari zerbitzuaren inguruko ordenantza onartu zuten, aho batez. Udala *On Ein!* izeneko egitasmoa lantzen dabil; 60 urtetik gorako herritarrei eguneko janari nagusia eskainiko liekeen zerbitzua, hain zuzen ere. Gainerako baldintzak honakoak dira: herrian errol-datuta egotea; bakarrik edo bikoteagaz bizi direnen kasuan, antzeko egoeran izatea; gizarte zerbitzuen oniritzia eta etxebizitza egoerarekin bat egitea. Ordenantzak dioenez, eskatzailearen urteko errentaren arabera izango da kuota ordaintzeko diru-laguntza.

Interesa dutenek Gizarte zerbitzuetarajo beharko dute. Enpresaren esleipena falta da egitasmoaren lanketa amaitzeko; otsailera-ko ipini gura dute martxan.

ZALDIBAR

Haur eskolako gurasoen sinadura bilketa martxan, udalari batzarra eskatzeko

Haur eskolako guraso elkarteak instalazioen gaineko kexak helarazi gura dizkio udalari

Bost urte dira Zaldubietan haur eskola zabaldute zutenetik, eta, guraso elkarteak adierazi duenez, "ordutik eraikinaren desegokitasunak agerian utzi dituzte guraso zein hezitzaileek". Udalak obrak ez egiteko "aitzakiak" erabili dituela salatu dute.

Denbora igarota, euren kezka udal arduradunei helarazi gura izan diete. Batzarra egiteko eskatu zieten azaroan, baina erantzunik jaso ez eta "zaldibartarren laguntza" eskatu dute, sinadura

bilketa eginez. Taberna eta den-da askotan dago sinatzeko aukera; datorren asteko batzarrean ekimenari jarraipena egin eta bertan erabakiko dituzte pausu berriak.

Oharrean, "udalaren utzikeria eta arduragabekeria" salatu dituzte: "Lotsagarria da ume txikiak dabilzan leku bateko instalazioak hain egoera kaskarrean egotea eta guraso eta hezitzaileek behin eta berriz egindako eskaerei entzungor egitea". ■ M.O.

Koadernoen bilduma amaitu du Lasuenek 30. liburuxka kaleratuta

'Herriko kondaira koadernuak' izeneko bilduma 2000. urtean hasi zuen Balendin Lasuenek, *Zaldibarko Bainuetxeak* koadernoan argitaratuz. Urteotan hainbat lan egin eta dagoeneko itxi du bilduma hori, kaleratu berri duen lanagaz batera. Berak bizitako hiru garaitako marrazkiak ekarri ditu azken alera: eskola publikokoa, marrazki artistiko eskolakoa eta heldutasuneko.

Baserriak, elizak, eraikinak eta pertsonaiak aurkitu daitezke lan berrian. 30 koadernoak ilustratzeko 700 argazkitik gora, marrazkiak, armazkiak eta zenbait abestiren pentagramak erabili

ditu. Lanak "esfortzu handia" eskatu diola dio Lasuenek liburuko agurrean, baina "gogo handiz" egindakoa izan dela. ■ M.O.



katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427 saltsan.com

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara
zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
murueta torre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

A CENTRAL FORESTAL

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



2
UNTS
1000
b/min
6 kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAE20010EE
345 € **BOSCH**



2
UNTS
1200
b/min
6 kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA AWO/D6130
275 € **Whirlpool**



2
UNTS
1200
b/min
7 kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA EWF-12480W
395 € **Electrolux**



2
UNTS
1000
b/min
8 kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAQ20361EE
435 € **BOSCH**



2
UNTS
1200
b/min
8 kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2812
455 € **FAGOR**



2
UNTS
7 kg
KONDENTSATZIOA

B Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA T-56840-L
425 € **AEG**



2
UNTS
7 kg

B Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA WTE8631 PEE
475 € **BOSCH**



2
UNTS

A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA 50872
375 € **AEG**



2
UNTS

A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA LJ-043X
360 € **FAGOR**



2
UNTS

A Sailkapen energetikoa
LABE PIROLITIKOA HB-73AR521
899 € **BOSCH**



2
UNTS

A Sailkapen energetikoa
INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220
950 € **AEG**



2
UNTS

INDUKZIOZKO PLAKA HOLLY H-13 S
365 € **edesa**



2
UNTS
1850
X
600
X
600

A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KG36NX03
450 € **SIEMENS**



2
UNTS
1850
X
600
X
600

A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KG36N73
545 € **SIEMENS**



2
UNTS

GARBIGAILUA ROOMBA 531
370 € **iRobot**

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. **MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagutu galtzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.



ATXONDO

Hilaren 17an egingo dute Arrazolako etxebizitzaren zozketa

Hamasei lagunek eman dute izena zozketarako; pleno aretoan egingo dute, eguerdiko 12:00etan



Apartamentuetan azken atontze-lanak egiten dabilta.

Otsail amaierarako kontratuak sinatu eta giltzak hartzeko moduan egongo dira Arrazolako apartamentu sozialen jabeak. Datorren astelehenean jakingo dute nori egokituko zaion apartamentu bakoitza. Etxeen zozketa udaletxeko pleno aretoan egingo dute, 12:00etan.

Zozketarako zerrenda zarratuta dago. Logela bateko bi apartamentuen zozketan bederatzi lagunek eman dute izena. Biloge-

lako etxebizitzarako, bost lagunek, eta hiru logelakoarentzat, berriz, bik.

Hirgintza Plana

Hiri Antolamendurako Plan Nagusian beste 56 etxebizitza sozial aurreikusi ditu udalak Apatan, Markoidako lurretan eraikitzeko. Planaren hasierako txostena hile honetan argitaratu dute Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Hile biko epea dago alegazioak aurkezteko. ■ A.U.

OTXANDIO

Otxandio, Aramaio eta Oletaren arteko lankidetzaren hitzarmena adostu dute

Herritarrek udal bietako zerbitzuak baldintza ekonomiko berdinetan erabili ahalko dituzte

Otxandio eta Oletako alkateek eta Oletako Administrazio batzordeko lehendakariak laster sinatuko dute hitzarmena eta helburu nagusia udal biek eskaintzen dituzten zerbitzuetara herri bietako biztanleen sarbidea pareka-

tzea da, baldintza ekonomikoak berdinduz; aramaioarrena Otxandion eta otxandiarrena Aramaion. Horrek berehalako eragina izango du Oletan, Otxandioko zerbitzu asko erabiltzen dituztelako. Gerora zerbitzu gehiago sartze-

ko atea zabalik utzita, jarduera konkretu batzuen zerrenda osatu dute: ludoteka, udalekuak, igerilekuak, pilotalekua, ikastetxe publikoak, kontsultategi medikoa eta ikastaroak, besteak beste.

Hitzarmena sinatu dutenek Oihandi bailarak izan beharreko garapenari buruzko "ikuspegi bera" ere konpartitzen dute. Bide horretatik, bailaren garapena helburu duten proiektuak zehazten eta gauzatzen elkarrekin behar egiteko asmoa adierazi dute.

Otxandio eta Ubideko populazio gune guztiak bailara honetan dituzte; Aramaio Oleta dauka; Abadiñok Urkiola eta Amainterrin; Zeanurik Barazar. ■ J.D.

IURRETA

Ortu ludikoekin lotutako ikastaroa, datorren astean

Iturburun ortu ludikoetan parte-hartu edukitzeko 28 iurretarrak eman dute izena, eta datorren astean sei orduko ikastaroa jasoko dute, nekazaritza ekologikoaren inguruan. Ramon Zearreta injeneru agronomoak emango du ikastaroa; astelehen, eguazten eta barikuan, 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Otsailean banatuko dituz-

te ortuak, eta ordutik aurrera Zearetarako jardungo du bertan monitorea, edozein kontsultarako.

Ortu hutsak eskuragarri

Udalak 40 partzela atondu ditu Iturburun, eta orain arteko eskariagaz, 28 beteko dira. Iurretarrak beste 12 ortuetan izena emateko aukera izango dute. ■ A.U.

Bakixan Donien Atxa jasotzeko eguna da gaur

Asteburu biko jai egitaraua gaur hasiko dute Bakixan, San Silvestreak ospatzeko. 21:00etan Donien Atxa jasoko dute, eta gero txokolatea egongo da denentzat.

Bihar plater-tiro txapelketa jokatu dute, 11:30etik aurrera, eta, ohitura denez, txapelketa ostean baba-jana prestatuko dute soziedadean, Bakixan bertan egindako txerriekien. Gauean

bakailao txapelketa egingo dute.

Domekarako kalejira, briska txapelketa, eskolako dantzariak eta ume jolasak antolatu dituzte. Datorren astean ere ekitaldi ugari edukiko dute Bakixan. ■ A.U.

Bihar ehun lagun inguru batuko dira baba-janean, plater-tiro txapelketa eta gero

Arriandiko monumentua berriztu dute

Duela urtebete baino gehiago kamioi batek apurtu zuenetik, Arriandiko monumentua zati-tua egon da. Berriztu egin dute bideak seinaleztatzeko monumentu zaharra. Bilborako bidea eta arrantzaletarako bidea seinaleztatzeko idatziak ditu monumentuak, eta 1830ean ipini zuten.

Udalaren asmoa Arriandin bertan "beste kokapen egokiago bat topatzea" da, "errepide bazterretik apur bat urrunago", Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez. ■ A.U.



ELORRIO

"Gogoz eta adoretu daude saharauiak aurrera egiteko"

Elorrioko Institutuko eta Txintxirri ikastolako 20 bat gazte Tindufeko kanpamenduan izan dira



"Esperientzia" zoragarria izan dela diote hara joandako gazteek.

Elorrioko Institutuko eta Txintxirri ikastolako 20 bat gazte aste-bete eman zuten, abenduan, Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan, Tindufen. "Esperientzia zoragarria izan da", diote. Saharaiaren aldetik "aurrera egiteko gogo eta adorea" jaso dituztela azaldu dute: "Izan ere, eurak ez dira horrela bizi hala gura dutelako, injustizia politiko baten ondorioz baizik".

El Aaiun probintziako Amgala herrian astebete eman dute. Esperientzia "zoragarria eta oso aberasgarria izan da" gazteen esanetan. Elkartasuna adieraztera joan ziren eta "esperientzia gogoangarri asko bizi izanda bueltatu gara".

Hango bizimodua eta saharaiaren kultura bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute han emandako egunetan, eta euskal kultura ezagutarazten ere ahalegindu dira: "Hainbat euskal joko erakutsi dizkiegu eta interes handia erakutsi dute". ■ J.D.

Komertzioetan hartu-emana euskaraz bultzatzeko kanpaina arrakastatsua



Geurien Euskaraz, Jakina! kanpainaren barruan, Elorrioko 66 komertzio, taberna eta enpresatan salerosketa euskaraz egiten zuten erosleak, txartel bat euren datuekin beteta produktuz betetako hiru otzararen zozketan sartu dira. Guztira, 6.000 txartel batu dituzte eta hauek izan dira hiru irabazleak: Elixabete Cuende, Mertxe Garitonandia eta Josu Abat. ■ J.D.



Durangaldean labor

Esperientzia Institutuaren ikastaro berria hastear

Urtarrilaren 19an Durangaldeko Esperientzia Institutuaren *Mirando al mundo con otros ojos* ikastaroa hasiko da, 55 urtetik gorakoei eskainia. Eskolak Durangaldeko Behargintzan emango dituzte gazteleraz; eguaztenetan 17:00etatik 19:30era, maiaztzararen 25a arte. Informazio gehiago eskuratu daiteke 94 623 25 22 telefonon.

Durangoko Liburutegian ipuin kontalari saioak

Urtarrilaren 21ean, 20:00etan, Nora Luak ipuin kontaketa saioa egingo du, gazte-leraz, Durangoko Liburutegian. Hilaren 29an, 12:00etan, Oihana Etxegibelek euskaraz eskainiko du saioa. Bestalde, hilaren 28an, 19:00etan, seme-alabak hezteaz gurasoei zuzendutako hitzaldia eskainiko du Juan Antonio Alonso psikologoak.

Erralderen produkzioa %30 hazi zen 2010ean

Erralde hiltegiaren 2010eko produkzioa 2009koa baino %30 handiagoa izan da, arduradunek jakinarazi dutenez. 2009an 7.097 behi sakrifikatu zituzten, eta iaz kopuru hori 9.177raigo zen. Esneko arku-meei dagokienez, 4.859 sakrifikatu zituzten; bildots horiek Bizkaiko Bildotsa izen-dapenagaz saldu ziren ondoren.

Gerediaga-Elorrio errepide proiektua onartu dute

Urtarril hasieran Aldundiak behin betiko onartu zuen Gerediaga eta Elorrio lotuko dituen errepidearen proiektua (Abadiño-Beasain). 240 milioiko aurrekontua eta 45 hileko exekuzio epea ditu. Berriz (A-8rako lotuneko zati batean) Abadiño, Atxondo eta Elorrio udalerrietako lur-zatietatik igaroko da. Proiektuak 29 alegazio jaso ditu.

ABADIÑO

“Defizita txikitzeko” neurriak onartu ditu gobernauk

Udalen defizita “txikitzeko”, langileen soldaten %5eko murriztea agintzen duen Espainiako Gobernuaren dekretua aplikatzeko “udal gobernauk bertako langileekin adostutako proposamena” onartu zuten urteko azken udalbatzarrean. 2011n gastua %5 txikitzeko, “udaleko lanpostuen zerrendan jasota dauden bost lanpostu bete barik utzita 80.000 euro aurrezte” dela proposamena azaldu zuten Navarro alkateak.

Langileen ordezkariekin adostutako proposamenaren alde egin zuen Talde Independienteak, neurriaren “legezkotasunari buruzko zalantzak” adierazi eta abstenitu egin zen EAJ, eta “horren ordezkari alkatate eta zinegotzien soldatak txikitzea” proposatuta kontra bozkatu zuten Ezker Abertzaleak. ■ I.E.

IZURTZA

Isuna hiru enpresari, beharrezko baimenik barik jarduteagatik

Lizentzia eskuratu orduko euren jardunari ekin zioten hiru enpresari zigorra ezarri die udalak

Jarduera ekonomikoari ekiteko derrigorrezko den lizentziarik barik jardun duten hiru enpresari zigorra ezarri die udalak. Zigor ekonomikoaren zenbatekoaren berri ematen zuen dekretua ekarri zuen gobernu taldeak plenoko mahai gainera; orain sei hilabete, bukatu barik zegoen industriagunean euren jardun ekonomikoari ekin zioten hiru enpresari espedienteak zabaldu zioten.

Iker Ballarin bozeroaleak plenon azaldu zuenez, legeak aurreikusten dituenetik erdibideko kopurua ezarri die udalak. Ezarritako isuna ordaindu beharko dute,

beraz, beharrezko lizentzia eskuratu orduko euren jardunari ekin zioten enpresok.

“Hirigintza batzordetik igaro barik, zigorraren berri alkatetza dekretu baten bitartez ematea” salatu zuten urte amaierako udalbatzarrean jeltzaleek. Ezker Abertzaleko Ballarinek, “isuna jaso duten enpresa horiei espedienteak zabaldu geniola bazenkiten, egin dugun bakarra tramitazioa jarraitzea izan da”, erantzun zien jeltzaleei. Zarrabeitia jeltzaleak salatu zuenez baina, “isunaren zenbatekoa zehazteko deitu ez izana da faltan bota duguna”. ■ I.E.



Duela sei hilabete zabaldu zuten udalak prozedura zigortzailea.

San Anton eguna ospatzeko gonbita Urkiolan astelehenean

Euskal Herriko beste hainbat txokotan legez, San Anton Abad baserriarren eta abereen jagolearen eguna ospatuko dute, urtarrilaren 17an, Urkiolako santutegian. Egund horretako usadioari eutsiz, ogia eta baserriko produktuak bedeinkatzuko dituzte 12:00etan, 13:00etan eta 18:00etan santutegian egingo dituzten mezatan. Txistulari abadiñarrek jardungo dute asteleheneko ospakizun eguna goizean goizetik girotzen.

Urkiolako santutegiko urte hasierako ohiturazko hurrengo hitzordua, urtarrilaren 23koa da: ‘Errepetizino’ eguna izango da domeka horretako, eta astelehen honetan moduan, 12:00etan, 13:00etan eta 18:00etan mezak, eta Abadiñoko dantzari eta txistularien saioak izango dira. ■ I.E.

GARAI

Aurten ere, baserriko uzta ekarriko dute Errematara San Anton egunez

San Anton eguneko ohiturazko ekitaldia da Erremata; aurretik meza ere izango dute

Urtero-urtero, herritar ugari batzen dituen ekitaldia izan ohi da Erremata. Askotariko produktuak eramaten dituzte bertara garaitarrek: oilaskoak, babak, frui-

zan, eta gero abadeak inguruko zelai eta lurak bedeinkatuko ditu; horren ondoren hasiko da elizpean enkantea.

Elkartasuna
Ongintzako ekitaldia da Erremata. Izan ere, bertan batutako dirua zenbait proiekturi laguntza emateko erabiltzen dute. Sarritan Ekuadorrera bidali dute garapen proiektuetarako, eta iaz Haitiko lurrikaran kaltetuei ere eskaini zieten, esate baterako. Mezan jasotako laguntza ere kopuruari gehitzen diote. ■ M.O.

Enkantean batutako dirua zenbait proiekturi laguntza emateko erabiltzen dute

tuak, ogia, pastelak... eta horiek guztiak enkantean ipintzen dituzte. Eguerdiko 12:00etan meza izango da San Juan ebanjelariaren eli-

MAÑARIA

Udalaren orain urte biko agindua bete eta dorrera lekualdatu dute antena

Beste bi dauden dorrera eraman dute telefonia mugikorrek Vodafone enpresaren antena ere

Telefonia mugikorrek antenek osasunean eragin ditzaketen kalteengatik kezkatuta, Arrueta auzokolur zoru pribatu batean zegoen antena kendu zezatela eskatuz salaketa bideratu zuten, orain zenbait urte, arruetarrek.

Auzotarren eskariz neurketak egin ondoren, orain urte bi, adierazi zuten udalak Vodafone konpainiaren antena ezin zela leku horretan egon, eta kendu zezatela agindu zuen alkatetza dekretu batean. Auzoan, gainerako antenak dauden dorrean ipini zezatela agindu zuen udalak.

Alkateak agindua dekretu bidez eman zuenetik urte bi igaro direnean aldatu dute antena lekuz, eta gainerakoak dauden dorrean ipini. Auzotarren ustez, baina, antena guztiak dauden dorrea ere ez da legezkoa, eta horri dagokionez ipini zuten salaketa argitu zain daude. ■ I.E.

Orain urte bi agindu zuen udalak antena lekualdatzea, alkatetza dekretu batekin

ALBERDI HARATEGIA HARATEGIA DURANGO

Bertako okela
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

ALBERDI HARATEGIA
prekozinatuak

BERBAZ>

"Iurretako bandera ez da dantzariena bakarrik; herritar guztiona da"

Iurretan gordetzen duten banderarik zaharrenak ehun urte bete ditu; hori gogoratzeko herri batzordea sortu dute.



Eneko Barroeta eta Asier Otadui •

- Iurretar dantzariak
- Herriko bandera omentzeko batzordeko kideak dira

"Jendeak erantzun ona eman digu, eta proposamenak entzutzeko prest gaude"

falta. Elkarte batzuk gutunetan-eta banderaren logotipoa sartu dute honezkerok.

A.O.: Gura duguna da jendeak bazter guztietan ikusi dezala banderaren urteurrena dela. Banderak herriko ekitaldietan leku txiki bat izatea, hori bakarrik, omenaldia egiteko era bat da.

E.B.: Oso pozik gaude jendearen erantzunagaz, eta proposamenak eta laguntza jasotzeko prest gaude.

A.O.: Azkenean bandera herriaren ikurra da, eta herria maite baduzu normala da ikur hori goratzea.

Honek badauka iurretar izatearen harrotasunagaz lotura...

E.B.: Durangoko lagunak hori esaten didate; berezitoak gara. Iurretarrekin eta herri txikiakoei daukagula hori. Egia izango da agian.

A.O.: Baina harrotasuna harrokeria baino gehiago, e?

E.B.: Nik uste dut Iurretakoa bakarrik ez dela, herri txikiakoa da; Atxondon, Garain... ez dizute esango Durangoak direnik, eta euren gauzei indarra emango diete. Gainera, horrelakoetan denok ezagutzen dugu elkar. Jende asko dago gauza askotan sartuta, eta pertsona bat bi lekutan badago bi taldeetakoak inplikatzeko dituzte. Horrela izaten da. ■ A.Ugalde

Iurretako leku askotan ikusgai dago; okindegian, tabernan, mendi irteerako kartelaren txoko batean... Herrian gorde duten banderarik zaharrenak 100 urte betetzen ditu aurten, eta mendeurrena gogoratzeko herri batzordea eratu dute.

Zelansortuzen banderaren mendeurrena ospatzeko batzordea?
Eneko Barroeta: Orain daukagun Iurretako banderarik zaharrenak 100 urte egiten ditu. Gu dantzarien mundutik gatoz, eta banderari data ipini eta horren inguruan zer edo zer egiteko momentua zela ikusi genuen.

Asier Otadui: Guk argi geneukan bandera ez dela dantzariena bakarrik, eta ez daukala alde bakarreko zentzu politikorik: bandera herritar guztiona da, eta derrigorra zen batzordea herrira zabaltzea. Gaur egun dozena erdi lagun batzen gara batzordean. Batzen garenez gainera, gauza jakinetan laguntzeko prest jende asko agertu da.

Orain ehun urte diseinatu zuten bandera hori?

E.B.: Ez, aspaldikoa da bandera! Diseinua Erdi Arokoa da. Gero urteak, joan eta etorri, ordezkioak egin dira. Oraindik kontserbatzen den bandera zaharrenak dauzka ehun urte.

Bandera ikusita, askok dantza taldeagaz lotuko du.

E.B.: Urte askotan dantza taldeak erabili du gehien, eta gaur egun ere udalak eta dantza taldeak erabiltzen dugu gehien.

A.O.: Azkenean dantza taldea dantza egitera doanean herria ordezkatzera joaten da, eta bandera eramaten du. Ezkontzetara ez dugu eramaten, dantza talde moduan ez garelako joaten, baina herriaren izenean dantza egiten dugunean bai.

E.B.: Baina bandera ez da bakarrik dantzariena; herri guztiaena da.

A.O.: Ikusten genuen guk ezin geniola egin omenaldi bat gauza bati gurea bakarrik ez denean. Dantzarien aldetik egingo diogu zer edo zer, baina herri guztiak ere bai, gura badu.

Batzordean zer egin duzue orain arte?

A.O.: Banderaren irudia duten metakrilatozko euskarriak banatu ditugu herri guztian, eta udaletxearen aurtengo egutegian ere bandera agertu da. Udalak beste irudi bat zeukan pentsatuta, eta birdiseinatu egin zuen dena bandera eta guztiko egutegia ateratzeko.

E.B.: Ikur hori zabaltzeko deia egin diogu herri guztia-

"Orain arte irudia zabaltzen ibili gara, herri guztiek jakin dezaten aurten mendeurrena ospatzen dugula"

"Banderak herriko ekitaldietan leku txiki bat edukitzea omenaldia da"

ri: iurretar guztiek ikusi dezatela ikur hori ogia erosterakoan, kafea hartzera doazenean... Zer ospatzeko asmoa dugun jakin dezatela.

Bakixakojaietan zer edo zer egin duzue...

E.B.: Bai. Denboraz oso justu gabiltza, baina banderaren informazioa herrira zabaltzen bertako jaietan hasiko gara. Herrira zabaltzearen kontu hori kofradietara ere zabaltzen da.

A.O.: Udaletxeko egutegiaren atzean ere jartzen du: "Sei kofradia, bandera bat".

Elkarteek eta herritarrek zelan hartu dute proposamena?

E.B.: Azken batzarrean hogeik elkar baino gehiagotik, bost elkar baino ez ziren


Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21

Konfiantzaren balioa

piso 

zure neurrira egokitutako konfiantzazko irtenbideak

MATIENA Erref. 002-1136
•137.631€ (22,9 milioi)



2 logelako pisu eguzkitsua, ganbararekin. Berogailua. BIKOTE GAZTEENTZAKO AUKERA ONA!

ZALDIBAR Erref. 002-493
•144.242€ (24 milioi)



Erdi berriztuta dagoen etxebizitza. 3 logela, egongela eta komuna. Garajea. PREZIO EZIN HOBEA!

DURANGO Erref. 002-997
•149.652€ (24,9 milioi)



Erdi berriztutako etxebizitza berogailuarekin. Leihoak aldatuta, sukalde handia 2 logela bikoltz eta komuna. Orain gutxi erreformatutako portala. AUKERAKOA!

ERMODO Erref. 002-1106
•173.692€ (28,9 milioi)



Igogailua. 3 logela, berogailua eta leihoak aldatuta. Sukalde handia eta komuna. AUKERAKOA! IGOGAILUA DUEN ETXEBIZITZA HORRELAKO PREZIOAN EZIN HOBEA!

IURRETA Erref. 002-1227
•179.702€ (29,9 milioi)



Berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. ZATOZ IKUSTERA!

DURANGO Erref. 002-1206
•204.334€ (34 milioi)



2 logela bikoltz, egongela terrazarekin. Guztiz berriztatua. Erdialdean kokatua. BIKOTE GAZTEENTZAKO AUKERA ONA!

DURANGO Erref. 002-1140
•216.000€ (35,9 milioi)



Erdialdean kokatua. Guztiz berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela. Eguzkitsua. Orientazio ona. BERRIA DIRUDI!

KOMENTUKALEA Erref. 002-1135
•216.364€ (36 milioi)



Igogailua duen etxebizitza. Berriztatua. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. ZATOZ GUREKIN IKUSTERA!

SASIKOA Erref. 002-882
•231.389€ (38,5 milioi)



Orientazio oneko pisua. Eguzkitsua. 15 urte ditu. 2 logela eta berogailua. EZ GALDU AUKERA HAU! SALTZEKO PREMIA!

IURRETA Erref. 002-1145
•239.803€ (39,9 milioi)



Etxebizitza altua Igogailuarekin. Guztiz berriztatua. 2 logela (lehen 3 zituen), egongela handia, sukaldea eta komuna. ETXEBIZITZA ONA PREZIO ONEAN!

ABADIÑO Erref. 002-1144
•240.404€ (40 milioi)



Beheko solairua 160 m²-ko terrazarekin. 4 urte. 2 logela, garajea eta trastelekua. BERRIA DIRUDI! SALTZEKO PREMIA!

SAN IGNAZIO Erref. 002-1234
•249.420€ (41,5 milioi)



Etxebizitza altua, eguzkitsua, Igogailuarekin. 3 logela bikoltz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea eskegitokiarekin. Garajea eta trastelekua. IZUGARRIZKO AUKERA PISO ON-en!

DURANGO Erref. 002-831
•252.425€ (42 milioi)



Landako zonaldean. 3 logela, komun bat eta bainugela. Garajea eta ganbara. AUKERA ONA! NEGOZIAGARRIA!

BERRIZ Erref. 002-1233
•258.435€ (42,9 milioi)



3 urteko aintzinasuna duen etxebizitza. 3 logela bikoltz eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. AUKERA ONA!

SAN IGNAZIO Erref. 002-1188
•312.526€ (51,9 milioi)



14 urte dituen etxebizitza. 90 m². 3 logela bikoltz, 2 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara eta garajea. AUKERA ONA!

HERRIKO GUDARIEN Erref. 002-1230
•336.566€ (55,9 milioi)



90 m² duen etxebizitza. Eguzkitsua. 3 logela bikoltz, 2 komun, egongela zabala eta sukaldea. Garajea eta trastelekua. ERDIALDEAN KOKATUA!

MARTXOAREN 8KO Erref. 002-1243
•365.235€ (60,76 milioi)



2 urteko aintzinasuna duen pisu eguzkitsua. 3 logela bikoltz, 2 komun, sukalde handia eta egongela zabala. Garajea itxia. OSO PISU ONA!

ZUBIAURREA DUPLEX Erref. 002-1238
•399.000€ (66,38 milioi)



8 urte dituen duplex zoragarria Tabiran. 4 logela bikoltz, 2 komun, eguzkitsua, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Kapritxora dekoratua. OSO PISU ONA!

ELORRIO Erakuntza berria
•192.323€ (32 milioi)



2 logela trastelekuarekin 177.000 euro, 3 logela trastelekuarekin 227.500 euro, 4 logela trastelekuarekin 283.000 euro, etxebizitzak terrazarekin 225.000 eurotik hasita. Garajeak aukeran. ERAIKITZAILEAREN ZUZENEKO PREZIOAKI ETORRI PISO ON-erak!

SAN IGNACIO Erref. 002-870
•192.323€ (32 milioi)



Eraikuntza berria. Beheko solairuak. 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Estreinatzeko! KALITATE-PREZIO PAREKAEZINA!



Konfiantzaren balioa

piso  .com

zure etxea saltzeko edo erosteko...

Zertifikatutako Bizkaiko
lehen inbiliaria sarea



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Ugertu bako borrokan tente!

730 egun, 730 gau, goiz eta arratsalde, arnasten dugun askatasuna usaindu nahian.

Ziega honetatik idatzi nahiko genukeen azken gutuna da hau; baina, zoritxarrez, ez da horrela izango.

Ez Euskal Herriak horrela nahi ez duelako. Baizik eta ziega ilun honetako giltza duten estatu zapaltzaileek ez dutelako zabaldu nahi herri honi askatasuna ukatzen dion ate madarikatua.

Ziegek, kartzeletako sarrera nagusiak bezala, euskaldunok ugertzen ikusi dugun sarraila bat dute atean.

Sarraila berria jarri behar izan dute behin eta berriz, eta berriro ugertuko zaie. Giltza sartu behar da sarraila horretan. Behin giltza barruan dela, jiratu eta kitto; zabalik da ziega zein kartzelako atea.

Gatazka zahar honetan, egun bizi dugun egoera berezia bezain berria da denontzat. Inoiz erdoilduko ez den herri zahar baten askatasunaren aldeko iraultza utopikoan, premiazkoa bilakatu da sarraila ugertuan giltza sartu eta jiratzeara.

Are premia handiagoa du gaixo larri dauden euskal bahitu politikoen kasuak; edota kondena beteta eta gatibu mantentzen dituzten euskal bahitu politikoen kasuak. Denak kalean behar lukete, amaren beroan eta amonaren irribarre goxoaren aldamenean. Beraien legeek diotena ere ez dute errespetatzen, euskal bahitu politikoak heriotz zigorrera kondenatuz.

Egoera latz hau luzatu ez dadin, ezinbestekoa da gure parte hartzea. Euskal Herriak exijitzen die bi estatu faxistei kartzela mortuetako ateak ireki ditzatela, gure bahitu politikoak etxean bizirik eta aske izateko. Hori ez da eskaera bat, exijentzia bat da!

Dispersioak dakarren samin guztia ez da berria gure herrian. Honetan ere, gure amonek eta aitonek tren eta autobus ugertzen ikusi dituzte, gehienetan atzeriko lurretan. Hainbatetan, dispersioak heriotzara eramanez gure senideak. Beste hainbatek desertu ekonomikoa sufritu izan dute beraien etxeetan. Kartzelaratua bahitua dagoena bada ere, bere lagun eta senideek ere pairatzen dute mendeku usaina duen kondena. Euskal preso eta iheslari politiko denok gure etxean izan behar gara. Horrela, gure arbasoek utzitako ondare den Euskal Herriaren nazio eraikuntzan jarduteko, bere defentsan jarduteko, zuekin batera parte hartzeko euskal estatu gorri baten jaiotzan. Euskal herritar guztion artean, eskuz esku, buruz buru eraiki behar dugu gure estatua; euskaratik eta euskaraz.

Badator eta bagoaz askatasunerantz; badator eta bagoaz justizia justua ezagutuko dugun egun librerantz. Bagoaz gure herriak bihotza eta burua ematen jarraituko duela, horrenbeste desio duen independentzia eta sozialismoa irabazi arte. Gure herriak eman duen odola ez da alperrikoa izango.

Sarraila ugertzen ikusten gauden honetan, gure eskar-kadarik beroena zuentzako da. Zuek gure senideen ondoren zaudetelako; zuen hitz gozo eta maitakorrek helarazten dituzuelako gu bahiturik gaituzten lau horma hauetara; kolore emanen diozuelako gure bizitza gris honi. Urrutiko kartzela mortuetan bagaituzte ere, Abadiñon bizitzeko aukera emanen diguzuelako, zuen hitzak paper zurian marraztuz,

gure eskuetan berbaroa isil, libre eta gozoak sortuz. Zuei esker, ahoan irribarrea sortzen zaigu, begiak umeltzen zaizkigu! Zuen baimenarekin, senide eta lagun guztiei maite zaituztegu esanda agurtzen gara Osnyko ziega ilun honetatik.

Ettxekoak, etxekoekin, etxean libre!



Eneko Zarrabeitia Salterain

Gabonetako haur parkea

Landako gunea. Duela hilabete euskarazko liburu eta disko gainezka eta Euskal Herrietatik hurbildutako jendez beteriko gunea berbera da, bai: Gabonetako egunetan gaztelu puzgarri eta umez beterik egon dena. Pozteko eta eskertzekoa da umeentzako jolasgune bat ipintzea, baina, tamalez, oraingo honetan euskarak ez du presentzia berdintsua izan. Bertara hurbildu diren ume, guraso eta ingurukoek ez dute hain giro euskalduna aurkitu, puzgarri eta atrakzioetako begiraleek euskaraz hitz egiteko erraztasunik ez zutelako.

Hainbat guraso hurbildu dira gurera kexaz, eta hainbatek komentatu dute egoera sarreran egon diren Berbaroko bi hezitzaileekin; hala direla jakin gabe.

Non daude Euskararen Egunean egindako aldarrikapenak? Non dago Euskararen Udal Araudia? Hilabete baino ez da pasatu lehenengoak egin zirenetik eta bigarrena onartu zenetik, eta ez gara gai izan umeentzako Gabon parkean begirale euskaldunak kontratatzeke.

Orain umeek eta gazteek ikastetxeetan matrikulazio berriak egingo dituzte, eta D ereduan matrikulatzearen aldeko kanpaina ere egingo da hainbat erakunde eta elkartetatik. Euskaraz irakurri, idatzi eta ikasteko aukera eta eskubidea izan nahi dugu, baina kalean eta aisialdian ere euskaraz bizi ahal izateko aukera izatea nahi dugu. Durangon euskaraz bizi nahi dugu. Guk eta gure umeek ere euskaraz egiten dugulako, gure ustez, Gabonetako parkean gertatutakoa ez da bidezkoa eta, beraz, salatzen animatzen zaituztegu.

Durango Udalean, Kontseiluaren Behatokian zein aldundiaren Elebiden.

- Durango Udaleko Euskara Zerbitzuan *Ez gaude konforme* atalean.
- Behatokian.
- Elebiden.

Berbaro elkarteak bazkide gurasoak

Sei hankako mahaia



Sergio Murillo
EAJ

Betor Euskadi normala

Borborrean hasi jaku 2011. urte barri hau, eta, zorionez, zordunak zorak ordaintzen hasi dira! Iazko iraila aldean agerkari honetan Gernikako Estatutua bete barik eta herri honen bake mina asetu barik zegoela salatzen neban, baina 2011n horreek guztiak betetzeko asmoz dabilzela emoten dau; hala batzuek, nola besteak.

Ez da normala orain dela 31 urte erreferendumean baieztatutako Estatutua bete barik egotea

2011 honetan horrelako hamaikatzu ikustekoak ete gara? Nik bat baino ez neuke ikusi gura: normaltasuna. Herri honetan denbora larregi daroagu normalak ez diran gauzak ikusten, entzuten eta bizitzen. Gaurkoan, nire ahotsa normaltasun eske dabilen oihu bati batu gura deusat.

Ez da normala orain dela hogeita hamaika urte erreferendum bidez baieztatutako Gernikako Estatutua bete barik egotea; normalean legeak betetzeko egiten dira. Ez da normala Eusko Legebiltzarrak herri-tar guztien ordezkariak ez batzea; normala alderdi guztiek ordezkari-tza edukitzeko aukera izatea da. Ez da normala, herenegun, Zapatero lehendakariagaz alkarrizketatu eta gero, Iñigo Urkullugaz batzartu behar izatea; normala ordezkari gehien daukan alderdiak lehendakaria izatea da. Ez da normala XXI. mendean, Europa zaharrean, herri batek bake mina izatea; normala baketan egotea da. Betor normaltasuna Euskadira 2011n.

Normala alderdi guztiek ordezkari-tzarako aukera edukitzea da. Normala ordezkari gehien daukan lehendakaria izatea da



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2011ko urtarrilaren 14a - 9. urtea - 399 zk.

Laguntzaileak:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzaileak: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

ANTZERKIA > ESTREINALDIA

Karrikak orain zortzi urteko lana deseraikita sortu du berria

Taldearen entsegu-lekua zenean, Durangoko institutuan, 2002an estreinatu zuten *Prostibuloo* antzezlanaren “deseraikitze” batetik sortu dute Karrikako “nagusien taldekoek” ***Hau ez da Kalkuta***. Zapatuan (20:00) eta domekan (19:00), Durangoko San Agustinen emanaldi bitan estreinatuko dute

Hogeitamar lagunek baino gehiagok osatzen duten taldearen hasierako urteetan, Durangoko Institutuan aurkeztu zuten *Prostibuloo* antzezlanaren berrinterpretazioa osatu du Karrika antzerki taldeko “nagusien taldeak”. *Hau ez da Kalkuta* izenagaz aurkeztuko dute obra urtarilaren 15 eta 16an, azken urteetan entsegu-leku izan duten San Agustin kulturgunean.

“Orain zortzi urteko gidoiaren parte batzuk mantendu ditugu, eta beste batzuk aldatu”

Santa Ageda auzoko, Barrenkale kaleko ‘Hau ez da Kalkuta’ dendara garamatzate

Aurkezpenean Joana Ocaña taldekideak kontatu duenez, 2002an Durangoko Institutuan estreinatu zuten *Prostibuloo* obra dalan berri horren oinarria: Karrika antzerki taldekoek institutuko areto nagusian entseatzen zuten garaiko antzezlanahartu dute *Hau ez da Kalkuta* sortzeko.

Obra hura berreskuratu dute, diotenez, “urte hauetan geuri gertatu zaigun moduan, obrari ere heldutasun puntu hori emateko”. Orain zortzi urteko gidoiaren parte batzuk mantendu egin dituzte, eta aldatu beste batzuk; orduan antzezle ziren etariko hainbatek hartzen du parte antzezlanaren berrinterpretazio honetan; batzuek paperak aldatu dituzte eta antzezle berriak ere sartu dira.

Karrikakoek oholtzan sortuko duten esparrua, asteburu honetako San Agustingo emanaldi bietan ikusle guztiei eskainiko dietena, Santa Ageda auzuneko Barrenkale kalea eta *Hau ez da Kalkuta* izeneko dendatxoa dira.

Baina, batez ere, dendako bezeroak diren emakumeak dira zapatuko eta domekako San Agustingo emanaldiko protagonistak: “Guztiak putak dira, baina bakoitzak bere amets eta gogo jakinak ditu, eta bizitza horiek islatzen ditugu”, azaldu digu Joana Ocaña. Maite Lopez antzezleak nabarmendu duenez, “pertsonaietan zentratzen saiatu gara”. Ocaña kideak gaineratu duenez, “pertsonaia horien azalean jartzea, bizitza horien gordintasuna barnerratztea eta zelan irudikatu gogoeta egitea” izan da prozesua.

Deseraikiz sortu

Txotxe zuzendariak azaldu duenez, pertsonaia ardatz hartzen duena, “barrura begirako” lana da *Hau ez da Kalkuta*, baina taldeak orain arte osatu izan dituen lanetan legez, espektakuluaren erakuntza plastiko zein eszenografiakoa ere landu dute. “Akaso”, dio zuzendariak, “espektakulu kontzeptuan baino sakonago egin dugulan oraingoan pertsonaiaren eta antzezpenearen arloan”.

Aurreko antzezlanean bakarrik erakoa zen formatua: emakume bakoitzaren bizipenak modu indibidualean eskaintzen zituzten. Lanaren berreraikitzeagaz, emakumeen arteko harremanak gura izan dituzte islatu, eta

Espektakulu kontzeptuan baino, pertsonaiengan gura izan dute sakondu



kalea, auzoa, emakumeon elkar-guneak ere erakutsi.

“Urteetan elkarrekin lan egin duten partaide finkoekin, talde amateur egonkor baten bidean nahi genuke ikuskizun honen bitartez jorratzea”, azpimarratu du Txotxe zuzendariak. Orain arte ere Karrika, ekoizpen gaitasun handiko taldea izan den arren, “beti mugatu izan gara asko Durangaldera, eta ikuskizun honen bitartez muga horiek gainditu eta gure lana Euskal Herrian zehar ezagutaraztea dugu helburua”, azaldu du taldeko zuzendariak.

“Gure lana Euskal Herrian zehar ezagutarazi gura dugu obra honen bitartez”

Hau ez da Kalkuta antzezlanaren “berezia” dela azpimarratu du Nazaret Froufe antzezleak ere aurkezpenean: “Lehenengo aldia baita aurretik oholtzaratutako lan bat berriro hartu eta bere gainean lan egiten duguna”. Hamarkada honetan Karrikan egindako ibilbidearen isla eta taldearen gaur egungo lekua topatzeko saiakera da obra, Frouferen berbetan. “Uste dut metamorfosi batean dagoela Karrika, eta taldeko nagusiaren nondik joko dugun pista bat izan daiteke obra hau”, gehitu du.

Ikuskizuneko musika Ekaitz Aiartzaguenak ikuskizunerako beren-beregi sortu izana ere nabarmendu dute aurkezpenean.

Zapatuan eta domekan, San Agustingo ikusleagaz hartu-emanen ipintzen dutenean hartuko du lanak dimentsio osoa, zuzendariak nabarmendu duen

moduan. Durangoko kulturgunean urteko lehenengo emanaldia izango *Hau ez da Kalkuta* antzezlanak; emanaldi bi egingo dituzte asteburuan. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Arantza Arrazola
San Agustin kulturgunea



Karrika: afiziotik ofiziora

Zapatu-domekan Karrikaren azken lanaz gozatzeko aukera izango dugu San Agustinen. *Hau ez da Kalkuta* lanarekin Karrikak nagusi egin dela aldarrikatu nahi du. Askok eta asko dira euren jarduna hamar urte baino gehiagoan jarraitu dutenak; batez ere, oholtzan erakusten dutena. Baina, badu Karrikak hain agerikoa ez den beste atal bat ere: antzerki-eskola, alegia.

Denbora honetan bertatik pasatu direnek antzerkigintza-aren atal guztiak landu dituzte: testuaren lanketatik hasi, eta, eszenografia, jantzigintza eta antzezteko teknikatan bukatu arte. Dagoeneko, euren ere igartzen hasi zaie nagusitzen ari direla (gaur egun bi taldeetan lan egiten dute; batetik, gaztetxo sartu berriak, eta, bestetik, hasiera-hasieratik sortu zen taldea). Asteburuan eszenan ikusiko ditugunek aspaldi bete zituzten hamabost urteak, eta, bizilegez—edo, etorkizunaren erronkari heldu behar izan diote. Askok antzerkia begi-bistatik galdu barik egin dute!

Bat baino gehiago antzerkigintzan trebatu da, BAiren (Bizkaiko Antzerki Ikastegia) bidez. Antzerkira zatoztenok jakingo duzue zelan beste batzuk gure artean jarduten duten, txarteldegian, teknikari legez edo aurkezle zein antzezle gisa. Eta beste batzuk, berriz, antzerkiaren harra zabaltzeari ekin diote, Zugar Ni eta Sinpa proiektuen arduratik teatroa irakatsiz.

Hala bada, Karrika nagusitu delakoan nago, afizioa ofizio eginda. Benjondaiela behin batean proiektu honetan sinetsi eta bultzatu zutenei, eta *kaka mordo bat!*

KANTAGINTZA > EKIMENA



Kantuaz gozatzeko, Kantulagun ekimena

Besteak beste, Xabier Amuriza, Josu Zabala eta Mikel Markez gonbidatu dituzte saioetan gidari lanak burutzeko

Berbaro euskara elkarteak eta Plateruena kafe antzokiak bultzatu eta antolatuta duten ekimen berria da 2011ko lehenengo hilabeteetan hasita, urtariletik maiatzera, gauzatuko duten Kantulagun izeneko.

Beste hainbat euskal herritan arrakasta izan duen formatua Durangon

Euskarazko herri-kulturgintza parte-hartzailea jorratzea dute ekimena antolatu duten Durangoko eragile biok helburu. Horrela, beste hainbat euskal herritan arrakastatsu izan direnak lako saioak ekarriko dituzte Durangora, Plateruenera hitzorduetara.

Durungaldeko euskaltzaleei, lagun arteko giroan kantuaz gozatzeko aukera eskaini gura diete Kantulagun ekimena antolatuta

Berbaro euskara elkarteak eta Plateruena. "Euskal kantutegiko ale ezagunak biziberritzeko zein hain ezagunak ez direnak entzun, ikasi eta ahogozatzeko modua eskaini" gura dute antolatzaileek.

Besteak beste, Bizkaiko kantak lantzeko aukera da egunetako hileroko hitzorduetan Plateruenera gerturatzen direnek topatuko dutena. Saioetan, gainera, luxuzko kantuzaleak izango dira gidari: kantari, letragile edo musikari ezagun bana izango da saio bakoitzean; Xabier Amuriza, Josu Zabala eta Mikel Markez gonbidatu dituzte, esaterako.

Urtarrilaren 20an, Xabier Amurizak gidatuko du lehenengo saioa, eta otsailaren 24an, martxoaren 24an eta apirilaren 28an izango dira ondorengoak. Parte hartzen duten lagun guztiak gonbidatuta dauden maiatzaren 27ko kantu afariagaz emango dute ekimena amaitutzat. ■ I.E.

IRAKURZALETASUNA >

Iurreta, Durango eta Elorrioko liburutegiak saritu dituzte

Durungaldeko liburutegiotako bilduma aberastuko duten haur eta gazteentzako liburu sortak jaso dituzte Iurreta, Durango eta Elorrioko liburutegiek sari, Espainiako Kultura Ministerioak eskaintzen duen Maria Moliner sariketaren hamairugarren deialdian. Eskualdeko liburutegiok irakurzaletasuna sustatzeko egin duten lanaren goraipamena da aipatutako saria.

Seigarren urtea da Iurretako liburutegia saritzen dutena

"50.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzea helburu duten proiektuei pizgarriak ematea" jomuga duen sariketan, seigarrenez nabarmendu dute Iurretako bibliotekan. Iaz saritu ez bazuten ere, laugarren aldia da Durangoko udal liburutegiak Maria Moliner saria jasotzen duena, eta aurkeztutako egitasmoari esker, lehenengoz jaso du Elorrioko udal liburutegiak sari hori. ■ I.E.

ARTISAUTZA > AZOKA

Aleak eskulangile elkarteak antolatu duen Artisautza Azoka Berrizen

San Antonio jaien egitarauaren barruan jasota antolatu dute Artisan Txokoa domekarako

"Ohiko azoka komertzialen aldean" euskara bultzatu eta azokako bisitarien parte-hartzea bultzatzeko asmoagaz antolatu dute, bigarren urtez, domeka honetan Berrizko frontoian izango den artisautza azoka. Horrela azaldu digu azoka antolatu duen Aleak eskulangile elkartearen kide den Felix Larrañaga berriztarrak.

Nafarroako, Iparraldeko eta Hegoaldeko eskulangileak batuta, elkarteak osatu zuten iaz, eta bigarren urtea da San Antonio jaien egitarauaren barruan azoka antolatzeko egokitzen diena udalak. Urtarrilaren 16ko frontoiko Artisan Txokoa zura lantzen jardungo duen Larrañaga berriztarragaz



batera Aleak elkartearen kide diren Durungaldeko Unzalu eta Olmo artisauak ere izango dira beste zazpi artisauarekin batera.

Euren erakusmahai eta ekoizpenekin bisitatzen dituzten Euskal Herriko txokoetara, artisautza arloan duten eskarmentuaz gai-

nera, euskara zabaltzea dutela elkartearen helburu azaldu digu Larrañagak. Horretarako, bisitarien parte-hartze aktiboa sustatzen duten tailerretan lanabes nagusia euskara izaten da.

Oso zabaldua den "artisautza azoketako produktuak oso garestiak" direlako usteari erantzuteko modu legez ikusten dute azoketaren erakustaldi eta tailerrak antolatzeko: "Erakusmahaiak bukatuta ikusten duten produktu horien atzean dagoen lanaren balioaz ohartarazteko herritarrek".

Keramika, beira edo zura eskuz zelan lantzen diren ikasteko aukera

Keramika, beira edo zura eskuz landuta osatutako jostailu, otar, tresna eta abarrak erakutsi eta salgai ipiniko dituzte Aleak eskulangile elkarteak antolaturiko azokan, domeka goizean. ■ I.E.

IKASTAROAK >

Humanitates: artea, literatura, matematika...

Durangoko Museoak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkar-lanean antolatutako ikastaroen edizio berria ipiniko dute hil honetan martxan. Aurreko edizioetan legez, herritarrei ahalik eta esparrurik zabaleneko jakintza arloak eskaintzea da ikastaroen helburua.

Besteak beste, artearen historiari, munduko historia eta literaturari, eta matematikari buruzkoak dira aurten eskainiko dituzten ikastaroak. Urtarri-lean hasi eta maiatzera arte, EHUko irakasleek gidatuko dituzten saioetan batuko dira parte-hartzaileak. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 15 19:00etan
AIKO ERROMERIA
DANTZALDI IBILTARIA. Sarrera doan.

URTARRILAK 22 19:30etan
DURANGALDEKO SURF JAIALDIA
FILM DOKUMENTALAK & MUSIKA
22:00etan THE LOONVAGOS + DJ FEST JAIALDIA. Sarrera doan.

URTARRILAK 28 22:00etan
ULANAH
EUSKAL BALKAN FOLK MUSIC KONTZERTUA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

HAU EZ DA KALKUTA
Karrika Antzerki Taldea (Durango)

Urtarrilak 15 • 20:00
Urtarrilak 16 • 19:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ
Liburu

11:04 601 07 76 Artekale, 14 Durango

DANBAKA >

Estiloarekiko fideltasuna eta jarrera saritu dituzte finalera heltzeko

Urtarrilaren 14an izango da finala. Saria Shot estudioan diskoa grabatzea izango da

Gaur, urtarrilaren 14an, izango da Danbakako finala. Lord Witch, Xarma eta Desprezio iritsi dira laugarren edizio honetako finalera. Beti bezala, Elgetako Espaloian izango da finala, 22:30ean hasita.

Hiru taldeek euren emanaldia egin ondoren, Atom Rhumbak kontzertua eskainiko du. Danbakako finaleko talde gonbidatua izango da bilbotarra. Rock-and-roll taldeak *Gargantuan Melee* azken lana zuzenean aurkeztuko du Espaloian; euren euskarazko lehenengo abestia jasotzen du lanak: 'Istingako mutikoa'.

Finaleko taldeak

Estiloarekiko fideltasunak eta jarraiek eroan ditu hirur taldeak finalera. Lord Witch bergararren gainean epaimahaiak ondokoa dio: "Taularatze oso zaindua, detaileak asko zainduta. Zuzenean asko irabazten dute eta ikuskizuna ematen dute, ikuskizuna dira".

Berriz eta Ondarruko kideek osatutako Xarma taldearen gainean "mezua" daukatela dio epaimahaiak: "Kanta onak dituzte, garapen eta aldaketa nabariek".

"Bada ordua XXI. mendean 'Do It Yourself' edo 'Egizu zuk zeuk' errebendikatzen. Naturaltasun handia dute eta koherenteak dira", dio epaimahaiak Soralue eta Bergarako Desprezio taldeaz.

Sariak

Talde irabazleak diskoa grabatuko du Shot estudioan. Kutxak babestutako saria izango da. Debagoieneko talde onenak, oster, MUK babes-tuta, bideoklipa grabatuko du.

Gainera, ikusleen artean Laino skate parkeak emandako skate materiala eta urtebeteko sarrera doan zozketatuko dituzte. Sarrerak salgai, daude 5 euroan (Gaztekutxarekin, 3 euro).



DESPREZIO

"Gustura eta pozik jaso dugu epaimahaiaren erabakia. Kontzertu aldrebesa eman genuen, izan ere sokak hautsi zitzaizkigun eta arazo tekniko ugari izan genituen. Horregatik ez geneukan esperantza handirik finalerako txartela eskuratzeko. Hala ere, arazo guztien aurrean nola buelta eman genion eta aurrera egin genuen ikusita, gu oso gustura gelditu ginen disfrutatu egin genuelako eszenatokian. Finalerako sorpresaxoren bat gordeko dugu, eta kanta berriren bat eskainiko dugu. Finalera begira ez dugu ilusio handiegirik egin nai. Izan ere, epaimahaiaren irizpide eta iritzi asko daude eta edozer gertatu daiteke".



LORD WITCH

Goienan irakurrita jakin zuten bergarrek finalerako sailkatu zirela. "Bi aldiz irakurri behar izan nuen egia zela ziurtatzeko. Finalari begira hainbat sorpresa ditugu; batez ere, bukaera aldera egingo ditugunak. Beti bezala, ikuskizuna eskainiko dugu. Abesti berri batzuk izango ditugu, baina gure himnoak direnak ere joko ditugu, jendeak abestiak ezagutu ditzan. Gu ondo pasatzera joango gara, eta helburua ikusleek ondo pasatzea izango da".



XARMA

"Harrituta baina era berean pozik gaude. Erronka bat izango da guretzako, eta dena emango dugu. Epaimahaiaren erabakiarekin sorpresa hartu dugu. Guk ondo pasatzeko helburuarekin eman genuen kontzertua, eta finalerako txartela eskuratzeko pozgarria izan da. Entseatzen ari gara, baina inprobisazioa ere izango da barikuko zuzenekoan. Jende asko egongo da, eta urduritasunak gaindituta dena emango dugu. Aurkariak euren estiloan ere bikain moldatzen dira, ea zer gertatzen den!".



JOSEBA IRAZOKI (ATOM RHUMBA)

"Disko berriko abestiak joko ditugu"

"Ostiralean, final egunean, disko berria aurkeztuko dugu. Batez ere, *Gargantuan Melee* azken laneko abestiak joko ditugu. Hala ere, aurreko diskoetako abestiak entzuteko aukera egongo da Espaloian. Danbaka lehiaketa ezagutzen dut, izan ere, orain dela urte batzuk Pettirekin etorri nintzen. Hortaz, jarraitu izan dut lehiaketa; baita, tokiko telebisten bidez ere. Danbaka bezalako lehiaketak onak iruditzen zaizkit. Musika giroa sortzen dute, batez ere kontzertuak egiten diren zonaldean. Uste dut gaur egun nahikoa saturazio dagoela musika mailan; hala ere, horrelako lehiaketek balio dute jendea erakartzeko".

BABESLE NAGUSIA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com



Antonio Deunaren Jaiak

URTARRILA

2011

B E R R I Z



JAI EN EGITARAUA

Urtarrilak 14 barikua

19:30 Olakueta Plazan "Sagardotegi Ibiltaria". Herria girotzeko erromeria trikitilariekin. Ondoren, Olakueta plazan odoloste-jana.

20:00 Olakueta errekin ibilalditxo egin ostean, Donien Atxa altxatuko dute Olakueta plazan.

21:30 Olakueta, betiko kantak Zeanuriko abesbatzarekin.

(Mila Milikuaren zuzendaritzapean)

Urtarrilak 15 zapatua

17:30 Olakueta plazan (edo probalekuan, eguraldiaren arabera) TXAN MAGOA.

18:30 Olakueta pilotalekuan San Antonioko V. Pilota Txapelketako finalak.

19:30-21:00 eta 23:00... Olakueta erromeria DJ Robertekin.

Urtarrilak 16 domeka (Antonio Deunaren Eguna)

12:00 Antonio Deunaren baselizan mezak

10:00 BTT martxa-irteera Urtiaga plazan. Izen-ematea doan

11:00 Eskualdeko XXX. Barazki eta Fruitu Erakusketa probalekuan.

11:00 Trikitilariak herria girotuko dute.

11:00 Olakueta pilotalekuan, Artisan Txokoa.

12:00 Olakueta plazan Bizkaiko bildots dastaketa.

13:00 Iremiñe dantza taldearen ekitaldia Olakueta plazan.

18:00 Olakueta plazan Disko Txiki Festa.

19:30 Kultur Etxean: "Euskadi Tropikal" musikala. Sarrera: 2 euro.

Urtarrilak 17 astelehena

16:30-18:30 Barrakak doan izango dira.

18:00 Olakueta plazan Hego Amerikako musika emanaldia: Arantxa eta Pantxo.

19:00 Pilotalekuan askaria eta nekazal olinpiada. Sarrera: euro 1.

Ikuskizuna, txorizo ogitartekoa eta edaria.

Urtarrilak 24 astelehena

20:30 Donien Atxa kenduko dute.

21:00 Olakueta afaria.

Urtarrilaren 21etik 24ra

Antonio Deunaren proben sariketa nagusia.

**JAIXETAN BE EUSKARAZ
ETA BERDINTASUNEAN!!!
ERASORIK, EZ!!!**

Harategia - Urdaitegia
JAYO
Iturriza, 21 Tel.: 94 682 44 64 BERRIZ

Amaluv
Liburudenda
aldizkariak papera opariak
Iturriza 29, Berriz Tel.: 94 682 62 48

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaila:

Cruzcampo Heineken Kaliber Guinness Harbin Penabarra Perrier Vña Alcorta

NESTOR ALDEKOA
HARATEGIA - URDAITEGIA

Espezialitateak: Behi Okela, Bertoko Txahala, Bildotsa, Txarriak eta Odolosteak

Iturriza kalea, 10 Tel.: 94 682 43 20 - BERRIZ

TABERNA - JATETXEA
TOKI-ONA

jai zoriontsuak opa deusuei!

euskal sukaldeak: MENIJA KARTA ZERBITZUA

Olakueta Plaza 48240 BERRIZ (Bizkaia) Tel. 94 682 42 02 94 682 41 27

Iturriza kalea, 9 Tel.: 94 682 40 09 48240 BERRIZ Bizkaia

fonda
TABERNA

SAN ANTONIO, 1. 48 240 BERRIZ BIZKAIA TEL.: 94.682.62.46

pedrojuan
JATETXEA

Dia

Zengotitabengoa • **BERRIZ**
Tel. 946 824 215

Harategi-Urdaitegi zerbitzua ere

ETXEBARRIA
ESTANKOA
Tabakoa Papera Opariak Fotokopiak
Iturriza, 14 Tel./Faxa: 94 682 79 58 BERRIZ

AZKONDO
ELEKTROTRESNAK

Iturriza, 8 Tel.: 94 682 42 93 48240 BERRIZ

ORLEGI
TABERNA

Tel.: 94 682 48 28 Iturriza, 5 BERRIZ

Juliantxu
Jatetxea

94 682 40 77 - 48240 Berriz (Bizkaia)



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa

AMALURRA[>]



2010 urtean zehar 2.600 tona hondakin jaso dituzte Garbigunean

Duela hamar urte zabaldu zutenetik, urterik urte igotzen joan da Garbigunean utzitako hondakin kopurua

Botikak, erradiografiak eta ehunak, esaterako, ezin dira Garbigunean utzi. Horientzat beste leku batzuk daude.

Gabon inguruan bisitak asko ugaritzen dira Durangoko Garbigunean. Etxeetako ganbarak husteko unea izaten da.

Apurtutako aparailuak, telebista zaharrak, autoen bateriak edo erretako bonbilak uztera hainbat pertsona gerturaten da egunero Durangoko Garbigunera. Iaz 25.000 pertsona gerturatu ziren, hondakinak birziklatzeko eramatera.

Teknologia aurrera egin ahala geroago eta material gehiago birziklatzeko aukera dago, eta geroago eta tona gehiago batzen dituzte garbiguneetan. Durangokoan, esaterako, duela hamar urte Garbigunea zabaldu zutenean 207 tona batu zituzten, 2005ean 1.711 tona, eta iaz 2.656 tona batu zituzten.

Gehien batzen diren materialak obra-hondakinak, zura, plastikoa eta metala izaten dira. Pasa den urtean, adibidez, obra-hondakinetan bakarrik 1.161

tona batu zituzte. Altzari eta zurezko materiala ere asko batu dute: 633 tona.

Egunean, batez beste, 71 pertsona gerturatzen da Garbigunera, eta gabonetan gora egiten du erabiltzaile kopurua. Aurtengo abenduan egunean 120 bisitari izatera heldu da. Gabon inguruan jostailu eta aparailu berriak erosten direla igartzen dute. Aurtun CD asko izan dutela azaldu digute.

Zer batzen den

Mota askotako hondakinak eramane daitezke Garbigunera: obra-hondakinak, plastikoa, merkurioa duten termometroak, bateriak, pilak, metala, zura, lora-tegietako hondakinak, pneumatikoak, jostailuak, etxeko tresna elektrikoak, ordenagailuak, telebistak, telefono mugikorak, era-

bilitako olioak, papera eta kartoa, plastikoa, beira...

Zer ez den batzen

Garbigunean material ugari utzi badezakegu ere, badaude zer batzuk ez direnak bertan uztekoak. Botikak, esaterako. Hauek farmazietan utzi daitezke. Erradiografiak ere ez dira batzen; anbulategietan utzi daitezke. Ehuna eta arropa ere ez dituzte batzen; horietarako edukiontzi bereziak daude kaleetan.

Asteburuetan zabalik

Ordutegi malgua izaten dute garbiguneak; astean zehar goizez eta arratsalde zabalik egoten da Durangoko (09:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era). Zapatu-domeketan goizez zabaltzen dute, 10:00etatik 14:00etara. ■ A.U.

KIROLAK >

Ziklo-kros proba eta mendi bizikleta martxa asteburu honetan Berrizen

Zapatuan Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusia korrituko dute Berrizburun atondutako zirkuituan; domekan Oiz mendian zeharreko mountain bike martxa abiatuko dute Urtiaga plazatik



Domekako mendi martxan iaz baino lokatz gutxiagoko ibilbidea osatzen saiatu dira antolatzaileak.

Mountain bikean ibili zalea denari hitzordu bikoitza eskainiko dio asteburuan Berrizko Bizikletari Elkartek (Udalak lagunduta). Lehenengo, bihar, Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusia antolatuko dute Berrizburu inguruko zirkuituan. Belodromoan hasi eta amaituko da lasterketa.

Parte-hartzaileak adinaren arabera banatuko dituzte. 2,5 kilometroko zirkuituan, kadetek 40 minutuko lana burutuko dute; gazteek 50 minutukoa eta gainerakoek (elitekoak, 23 urtez azpikoak eta Masterrak) ordu-betekoa. Izen-ematea 08:30ean

hasiko da belodromoan bertan, eta lasterketak 10:00etatik aurrera abiatuko dituzte; elite mailakoa 13:00etan hasiko da.

Era berean, lasterketak Bizkaiko Kopari amaiera emango dio. Txapelketa hori dagoeneko irabazita du Aitor Hernándezek, eta bigarren dago Iñaki Lejarreta. Berriztarrak ez du parte hartuko beste konpromiso batzuk dituelako.

Urteroko mendi martxa

Bestalde, domekan, 10:00etan, urteroko ohiturari eutsiz, Mendi Bizikleta Martxan parte hartzeko

Berrizburu inguruko baso eta mendietan ibiliko dira bihar

Etziko mendi martxak 29 kilometro egingo ditu Oizko parajeetan

aukera eskainiko dute. Urtiaga plazatik irtenda, 29 kilometroko ibilbideak (hiru laburbide egongo dira) Oizko mendi bideetatik eramango ditu parte-hartzaileak. Ohi duten moduan, ibilbidea aldatu egin dute aurten: "Paraje ezagunekin gozatzeko eta bide berriak ezagutzeko modua izango da", dio Iñaki Lejarreta antolatzaileetako batek.

Izen-ematea doakoa da eta 09:00etan hasiko dute Urtiaga. Lasterketa amaitzean jan edanak banatu eta opariak zozketatuko dituzte. Dutzatzeko aukera ere egongo da. ■ J.D.

Ruiz eta Murgoitio, txanponaren alde biak

Espainiako Txapelketan zilarra lortu du Ruizek; Murgoitio aukera barik utzi du eroriko batek

Asteburuan Espainiako Ziklo-kros Txapelketa jokatu zuten Zamoran, eta Euskadiko Selekzioak sei domina irabazi zituen. Horien artean dago 23 urtez azpikoan Hirumet taldeko Dani Ruiz gernikarrak lortu zuen zilarrezkoa.

Elite mailan, aldiz, Egoitz Murgoitio zorte txarra izan zuen. Aurrean zihoala, Suarezek gura barik atzetik ukitu eta zuhaitz baten kontra kolpatu

zuen ezkerreko sorbalda. Azkenean, minaren minez, bederatzigarren amaitu zuen Hirumeteko txirrindulariak: "Espainiako Txapelketan zorte txarra daukat beti; bata ez bada bestea gertatzen zait, baina beti zer edo zer. Aho zapore txarragaz geratu naiz", adierazi du abadiñarrak.

Elite mailako lasterketa Javier Ruiz de Larrinagak irabazi zuen. Borroka horretan behar zuen Murgoitio. ■ J.D.

Lasterketen egitura aldatzea onartu dute

Lehendakari Txapelketa 22 urtera artekoa eta Euskaldun Torneoa 28ra artekoa izango dira

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak datorren denboraldirako txapelketen egitura aldatu du. Aldaketak bozkatzeko egindako batzarrean, Bizkaiko eta Arabako federazioek alde bozkatu zuten, eta Gipuzkoakoak, oro har, kontra.

23 urtez azpiko txapelketa Lehendakari Txapelketagaz bateratu dute. Beraz, iaz arte 19 eta 20 urteko gazteek parte hartu zezaketen txapelketaren

adin tartea 22 urtera arte luzatu dute. Horrela, gazteetatik nagusietara saltoa ematen duten txirrindulariek eurak baino zailduago dauden ziklisten kontra borrokatu eta zaildu beharko dute.

Euskaldun Torneoa, berriz, 28 urtera artekoentzat mugatu dute aurtendik aurrera. Handik gorakoek adin tartetean banatuta korritu beharko dute (Master 30, 40...). ■ J.D.

Sasikoa zulotik kanpora, hiru partidu segidan irabazi ondoren

2010 amaitu zuten besteko ondo ekin dio urte berriari Sasikoak areto futboleko. Kirol Sport eta Allerru Algeposa taldeei irabaziz itxi zuen urtea, eta Juventud del Circulo menderatuz hasi dute 2011. Bata bestearen atzetik lortutako hiru garaipen horiekin ohorezko A mailako zulotik irten dira.

Ohorezko B mailan Elorrioko Buskantza seigarren dago, aurreko urteetan baino erosoago. Euskal ligan Mallabiak bigarren jarraitzen du, etxetik kanpora orain arteko lehia denak irabazita. Lehenengo erregionalean Abadiño-ko Lagun lider dago. ■ J.D.

Bigarren fasea puntuekin hasi du Elorriok

Errubgian euskal ligako bigarren faseari ekin zion Elorriok, joan zen asteburuan, Donostian. Bera Bera Bk esperientziadun (ohorezko mailan, Euskadiko Selekzioan...) taldea du eta horregatik, partidua galdu arren (14-8), elorriarrek ontzat jo dute defentsa gotorriar esker batutako puntua.

Atsenaldira 0-3 aurretik joan ziren, Ekaitz Iraetak sartutako zigor kolpe bati esker. Bigarren zatiko azken txanpara arte partidua irabazteko aukerak ere izan zituzten, lagoba Apellanizek entsegu bat lortu ondoren.

Zapatu honetan Elorriok Gernikaren kontra jokatu du etxean. ■ J.D.

Tabirako, lehen itzuliko lorpena berritu guran

EBA mailako bigarren itzulia hasiko du asteburuan Tabirakok; etxean, Zornotzaren kontra. Ligako estreinako partiduan Durangoko taldeak uste-kabea eman eta irabaztea lortu zuen. Lorpen hura berritzea ez da erraza izango, harrezkero beste lehia bat bakarrik irabazi duelako.

Bestalde, joan zen asteburuan Euskadiko Selekzioak hirugarren egin zen Espainiako Txapelketako kadeteen mailan. Selekzioarako hautatuen artean Tabirakoko jokalaria bi zeuden: Jagoba Guerrero del Unamuno eta Paul Rodriguez. ■ J.D.

Atxondoko mendizaleen bilgune berria: Asuntze

Hainbat atxondar gaztek Asuntze mendi kluba sortu dute, bertako mendizaleen elkargune bihurtu eta herrian zaletasuna sustatu guran

Asuntze mendi klubaren bitartez, atxondarrek herrian bertan dute hemen-dik aurrera euren zaletasuna gartu eta konpartitzeko modua. Abendu amaieran egindako aurkezpen ofizialean, klubaren asmo nagusiak aipatu zituzten. Mendia gustatzen zaien guztien bilgune bihurtu gura dute, eta horretarako ahalik eta egitaraurik zabalena osatzen ahalagindu dira.

Baliabideek ahalbidetzen dieten neurrian, irteerak (eskiztera, inguruko mendietara zein

Euskal Herrikoetara...) ahalik parte-hartzaileenak izan daitezzen saiatuko dira, "gazte zein heldu, denek mendiaz gozatzeko aukera izan dezaten", Igor Ibazeta klubeko kideak adierazi duenez. Irteerez gainera, ezagutza eta mendirako trebakuntza ere ardatz hartuta, egitaraua bideo emanaldiak, ikastaroekin eta hitzaldiak osatzeko asmoa dute.

Mendi klubeko beste ildo bat mendizaletasuna sustatzea ere bada, eta, horretarako, gaz-

tetxoei bideratutako ekintzak burutuko dituzte Marixurrikeri aisialdi taldeagaz elkarlanean: otsailean txitxiburduntzia, ekainean Salburuara irteera...

Sasoi bateko Pol-pol

Sasoi batean Pol-Pol inguruari Asuntze deitzen zitzaien eta, hango lur zati bat Atxondokoa denez, izen hori berreskuratu gura izan dute.

Mendi klubak e-mail bat sortu du interesatuentzat: asuntzemk@hotmail.com. ■ J.D.



Apatako udalbatzar aretoan egin zuten aurkezpen ofiziala abendu amaieran. Asuntze

Berasaluze eta Kaperok zail dute txapela berritzea

V. San Antonio Pilota Txapelketako finalean Isma Astarloa jotzailea izango dute parean

V. San Antonio Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte zapatuan, 18:00etan, Berrizko pilotalekuan. Lehenengo mailan, iazko irabazleek, Eñaut Berasa-

luze eta Kaperok berriztarrek erronka gogorra izango dute aurten Zumeaga eta Astarloaren aurka. Astarloa (Berrizen bizi den ermuarra) Enpresas Unida-

sen profesional ibilitakoa da, eta kolpe bortitza du.

Bigarren mailako finalean Areitio Iak eta Arriaga Iak Agirrebeitia eta Etkezarragaren aurka jokatuko dute. Hirugarren mailako finalean Rojo eta Sauto Estebez eta Zabalauren aurka lehiatuko dira. Rojo berriztarrek (61 urte) ez du pilota bat galdutzat ematen, lurretik airean ibili behar badu ere. Sautok 68 urte ditu eta Durangoko pilota eskolako delegatua da. ■ J.D.

Unai Zamalloa
•Saskibaloi entrenatzailea



Urte hasiera beroa

Hasi barri dugun urte hau benetan bero dator saskibaloiari dagokionez. Alde batetik ACB ligan gure hiru ordezkariak Kopara sailkatzeko borrokan ari dira, eta bestetik, gure inguruan, datorren zapatuan jokatuko den Tabirako Baqué eta Zornotza Saskibaloi Taldearen arteko EBA mailako derbia dira aipatzekoak.

ACB ligan, Caja Laboral Baskoniak sailkapena eta zerrendaburu izatea lotuta ditu, joan den igandean Lagun Aro Gipuzkoa Basketen aurkako derbian lortutako garaipenaren ondoren. Gipuzkoarrak, oster, matematikoki oraindik aukerak badituzten arren, benetan zail daukate Kopara sartzea. Benetan penagarria izango litzateke beraientzat, eskue-tan izan dute-eta momentu askotan helburua betetzea. Bizkaia Bilbao Basketek, aldiz, Menorcan irabazita sailkapena matematikoki lortzeko aukera izango du, beste emaitzak aldekoak baldin badira. Hori horrela ez bada, hurrengo jardunaldian, etxean borobildu beharko du lana Cajasol talde indartsuaren aurka.

EBAn, oster, derbi interesgarria eta polita izango da Landako kiroldagian zapatu honetan. Alde batetik, Tabirakok jaitsiera ekiditen hasteko ezinbesteko du garaipena, bestela zuloan geldituko baita Durangoko taldea, eta bestetik Zornotza saskibaloi taldeak azken hiru garaipenak ematen duten lasaitasunarekin, sailkapenean sendotzeko garaipena behar du.

Irabazi dezala onenak, baina badakizue, kasu honetan, ni ez naizela inpartziala...

Ansotegi eta Yoldi-Linzoian nagusi Olazarren

Urtero legez, Zaldibarko pilotalekua lepo bete zen Olazar Pilota Txapelketako finalekin gozatzeko. Lau t'erdian Ansotegik (Etxarri Aranaz) 22-15 irabazi zion Ezkurdiari (Arbizu). Partidu erditik aurrera Ezkurdiak ezin izan zion Ansotegiren jokoari eutsi. Binakakoan Yoldi eta Linzoainek (Uhartea) 22-12 menderatu zituzten Mendizabal eta Irureta (Antzuola eta Beasain). Irabazleek 15 tanto egin zituzten bata bestearen ostean, finala erabakiz. Yoldi izan zen onena. ■ J.D.

Agenda

ARETO FUTBOLA
OHOREZKO A MAILA
Sasikoa Durango - Castro Urdiales
Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

SASKIBALOIA
EBA MAILA
Tabirako - Zornotza
Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian
LEHENENGO MAILA
Tabirako - Las Gaunas
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

ERRUGBIA
EUSKAL LIGA
Elorrio - Gernika
Zapatuan, 16:30ean, Elorrioko errugbi zelaian

PILOTA
DURANGALDEKO PILOTA TXAPELKETA (finalerdia)
Umetxoak: **Berriz-Lea Ibarra**. Umeak: **Durango-Lea Ibarra**. Gaztetxoak: **Iurreta / Lea Ibarra**. Gazteak: **Iurreta-Berriz / Mañaria-Durango**. Nagusiak: **Mallabia / Iurreta**. Barikuan, 17:45ean, Elorrioren.
Umetxoak: **Markina-Atxondo**. Umeak: **Atxondo-Abadiño**. Gaztetxoak: **Markina-Mallabia**. Kadeteak: **- Mallabia-Iurreta - Markina-Lea Ibarra**. Nagusiak: **Markina-Berriz**. Zapatuan, 16:30ean, Apatan.

Zortziko txapelketa hasiko du Abadiñok

680 kilora arteko txapela defendatuko du bihar Abadiñok Durangoko pilotalekuan

Goma gaine zortziko sokatira txapelketa hasiko du bihar, 17:00etan, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan. Sei talde ibiliko dira 680 kilora arteko txapelaren bila: Abadiño, Ibarra, Sokarri, Amaiur, Zudaire eta 6 Conceyos. Azken talde hori Asturiarra da eta gonbidatu moduan parte hartuko du.

Abadiño ez dago sasoirik onenean. Lauko txapelketan, 320 kilora bitartekoan, hirugarren amaitu du eta 300 kilotan ez da finalera sailkatu. Hala ere, azken bederatzi urteetan txapel denak irabazi dituen zortzikoari hasiera ona emateko "itxaropena" dute, Edu Mendizabal entrenatzailearen esanetan. ■ J.D.

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

ODI-BAKARREN SORTZAILEEN ESKUTIK...

ERROTARITXUENA BERRIA

LASTER DURANGON



ETXEBIZITZA ETA GARAJEEN ERAIKUNTZA BERRIA

946 46 20 41

Eraikitzen ari garen promozioa. Informazio hau aldatu egin daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Apirilaren 21eko 515/89 E.D.an eskatzen den eta publizitate honen barruan ageri ez den informazio guztia interesatuen esku dago gure merkatantza-bulegoetan.

%100ean finantza-
tutako erosketak:

BancSabadell



sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

www.sukia.com

www.solvía.es

anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Dena kanpoalde-runtz. Garajea eta trastelekua. Oso polita. Tel.: 615 007 216

Abadiño. Muntzaratzen. 2 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, igogailua, trastelekua eta garajea. 4. solairua, ia berria. 217.000 euro. Telefonoa: 688 686 587

Durango. Apartamentu ederra, estreinatu bakoa. Odi bakar. Kalitatea. Domotika. Ezkaratz hornituta. Gela bat, komuna, egon gela, balkoia. Asko gustatuko zaizu. Tel.: 669 454 618

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular eta baita terraza komunitarioak ere. Guztiz jantzia. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655 704 684

Durango. Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Al-tzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Berehala bizitzera joateko aukera. 215.000 euro. Tel: 607 715 353

Durango. Kalebarrian, 74 m2. 3 logela, despentsa, egongela, sukaldea eta komuna. Erreformatuta, oso polita. Ganbara. 696 397 387

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztatua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! Tel.: 659 425 890

Durango. 94 m2-ko etxea salgai, Herriko Gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekin. Prezioa: 343.000euro (57m). Tel.: 615 760 801.

Durango. Andra Maria kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera; oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terraza-rekin. 696 255 083 (arratsaldeko 17:00etatik aurrera)

Durango. Sasikoan. 3 logela, komuna, egongela-jangela, sukaldea eta ganbara. Prezio onean. Garajea ere bai, nahi bada. 679 382 369

Elorrio. Berritua, 124 m2, gas naturala, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Prezioa: 264.500 euro. Tel.:685 734 825

Elorrio. Berrio-otxoa kalean berriztuta dagoen jauregian, 70 m2-ko pisu polita, 2 logela, sukalde eta egongela, komuna, trastelekua, garaje itxia. Dena 303.000 euro; trasteleku eta garaje barik 283.000 euro. 653 748 001

lurreta. Askondo kalean. 210.000 euro. 78 m2, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua badago. Garajea ere bai, gura bada. Tel.:94 681 1948.

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. Tel.: 655 702 647

ERRENTAN EMAN

Atxondo. Bi logela alokagai, komunareko eta sukalderako eskubidearekin. 666 829 510

Durango. Ederra. Berria. Odi bakar. Gela bat, ezkaratza, komuna, egongela, balkoia. Domotika. Kalitatea. Argitsua. Tel.: 669 454 618

Durango. 3 logela. Oso eguzkitsua eta bista ederrak. 4. Pisu, igogailu eta bero-gailuagaz (gas naturala). Telefonoa: 638 125 838

Durango. Gela bat daukat libre, etxea astelehenetik ostiralerara partekatuko asmoarekin. Deitu: 658 72 45 90 telefonora. Rober.

Durango. Pisu konpartitzeko laguna behar da. Telefonoa: 679 620 447

Zaldibar. Logela bat ematen dut errentan. 655 739 792

ERRENTAN HARTU

Durango. Alokatzeko etxe bila nabil durangon eta inguruetan. 637 144 162. Momo

OPORRETA KO ETXEBIZITZAK
ERRENTAN EMAN

Durango. Larunsen (gourrette eski estazio ondoan) mobilhomea alokagai, eski denboraldian, astelehenetik ostiralerara. 678 748 924

PISUA KONPARTITU
PISUKIDE BILA

Durango. Etxea partekatze-ko, durangaldekoa den etxekide bila nabil. Beltzane. Tel.: 669 710 680.

Durango. Pertsona bat behar dugu pisua konpartitzeko. Durangon, leku onean. Pisu berria. Tel.: 657 723 614

LOKALAK
ERRENTAN EMAN

Abadiño. Lokal ekipatua, al-tzariekin alokagai, matiena eta durango bitarteko errepidean.120 m2. 619 790 053.

Atxondo. Apatan 40 m2-ko lokala alokagai. Komuna ipinita dauka. Tel.: 686 137 123

Durango. Biltegi modura erabili daitekeen lokal bat alokagai dago Kalebarrian. 20 m2. 200 euro hilean. Tel.: 665 700 461.

lurreta. Pabilioia alokagai Arriaundiko industriagunean. 150 m2 beheko solairua. 120 m2 goiko solairua. Tel.: 657 794 552

GARAJEAK
SALDU

Abadiño. Garajea salgai Matienan. Zeus-en lokalean. Deitu eta informatu! telefonoa: 94 681 70 67

Berriz. Itxita. Argia eta ura (berriak). Ate automatikoa, bainua, txokoa eta bodega txiki bat. 41 m2. 2 edo 3 kotxe. Tel.: 615 752 136

Durango. Garajea (marrak) alokatzen dut, landako 7 kalean (madalena ondoan). 35 euro. Tel.: 625 921 057

Durango. Garaje partzela bat salgai Alluitz kalean, 3an. 22.000 euro. Telefonoa: 636 338 246. Amaia

Elorrio. Garajea salgai Berrio-Otxoa kalean. Telefono zenbakia: 658 759 264

ERRENTAN EMAN

Durango. Lonja-trasteroa alokatzen da, errotaritxuena auzoan (durango). Telefonoa: 615 750 039

Durango. Garaje bat alokatzen dut azoka plazaren ondoan. Interesa izanez gero, deitu. Tel.: 619 187 799.

Durango. Motorrarentzako garaje partzela bat alokagai, 25 euroan. Erdigunean kokatuta. Saltzeko aukera, 9.000 euroan. Tel.: 665 700 461.

